

# ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

### *Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

4.619

**596/2006 ERABAKIA**, uztailaren 11ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez uztailaren 26ko Diputatuen Kontseiluaren ohiko bilkura uztailaren 27ra atzeratzen da eta 2006ko abuztuaren 3rako aparteko bilkura deitzen.

Uztailaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 610/2003 Erabakiaren bidez diputatuen kontseiluaren ohiko bilkuren araudia zehaztu zen. Erabaki horretan xedatzen zen diputatuen kontseiluak, oro har, asteartean egingo zirela, dena den, baita ere egoerak hala behartuko balu, aldatu egin ahal izango zirela.

Kontseilurako zehaztutako eguna jaieguna denean, hurrengo egunera atzeratuko da.

Santiagooko jaiaren (uztailaren 25a) hurbiltasunak eta udako oporraldien gertutasuna dela-eta administrazio antolaketa betebeharrak uztailaren 26ko Diputatuen Kontseiluaren ohiko bilkura uztailaren 27ra atzeratzea eta 2006ko abuztuaren 3rako aparteko bilkura deitzea gomendatzen dute.

Horregatik guztiatik, diputatu nagusiaren proposamenez, eta diputatuen kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, ondokoa

#### ERABAKI DUT:

Lehenengo.- Uztailaren 26ko Diputatuen Kontseiluaren ohiko bilkura uztailaren 27ra atzeratzea.

Bigarren.- 2006ko abuztuaren 3rako diputatuen kontseiluaren aparteko bilkura deitzea.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko uztailaren 11.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.

### *Foru Aginduak*

#### HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

4.582

**598/2006 FORU AGINDUA**, uztailaren 5ekoa, Armiñongo udalerriko SAU-1eko plan partzialaren espedientea behin betiko onartzen duena.

#### I.- AURREKARIAK

Lehena.- Armiñongo Udalak 2006ko otsailaren 2ko idazki baten bidez (Arabako Foru Aldundiko sarrerako errolda zenbakia: 2763) Armiñongo udalerriko SAU-1eko plan partzialaren espedientea bidali zuen aldundira.

Bigarrena.- Espedienteari 2005eko uztailaren 21ean eman zitzaion hasierako onarpena eta hamabost egunez jarri zen jendaurrean. Horretarako iragarki bana argitaratu zen 2005eko irailaren 3ko "El Correo" egunkarian eta 2005eko abuztuaren 29ko Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN (96 zenbakia).

Hirugarrena.- 2006ko martxoaren 6ko idazki baten bidez Armiñongo Udalari jakinarazi zitzaion espedientearen izapidetzea bertan behera gelditzen zela Herrilan eta Garraio Zuzendaritzari txostena eskatzen zitzaionetik (2006-03-03) txosten hori jasotzen zen arte (2006-04-24).

Laugarrena.- Jendaurrean egon zen bitartean ez zen plan partzialaren espedientearen aurkako inongo alegaziorik aurkeztu, beraz, 2005eko irailaren 3an behin-behineko onarpena eman zitzaion.

#### II.- OINARRIAK

Lehena.- Plan partzial horrek Armiñongo Udaleko ordezkoi arauetan SAU-1 izenarekin agertzen den hiri lurzorua xehetasunez azaltzen du. Sektore horrek 32.300 m<sup>2</sup> ditu eta Armiñongo herrigunearen hegoaldean dago. Bertan 39 etxebizitza egiteko beste lur eraikigarri dago. Horietatik 24 (12x2) binakako etxebizitzak izango dira, 3 familia

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

### *Decretos Forales del Consejo de Diputados*

4.619

**ACUERDO 596/2006**, del Consejo de Diputados de 11 de julio, que traslada la sesión ordinaria del Consejo del día 26 al 27 de julio y convoca la celebración de sesión extraordinaria el 3 de agosto de 2006.

Mediante Acuerdo del Consejo de Diputados 610/2003, de 14 de julio, se regula el régimen de las sesiones ordinarias del Consejo de Diputados, que tendrán lugar los martes de cada semana, sin perjuicio de la modificación de dicho día cuando las circunstancias lo aconsejen.

Cuando el día señalado para el Consejo sea festivo se trasladará al día siguiente.

La proximidad de la festividad de Santiago (25 de julio) y los requerimientos exigidos por la organización administrativa con ocasión de la inmediatez de las vacaciones estivales, determinan la necesidad de trasladar la sesión ordinaria del Consejo de Diputados del día 26 al 27 de julio, así como la convocatoria de una sesión extraordinaria el día 3 de agosto.

En su virtud, a propuesta del señor Diputado General, y previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo en el día de la fecha,

#### ACUERDO:

Primero.- Trasladar la sesión ordinaria del Consejo del día 26 al 27 de julio.

Segundo.- Convocar sesión extraordinaria del Consejo de Diputados el próximo día 3 de agosto de 2006.

Vitoria-Gasteiz, a 11 de julio de 2006.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.

### *Órdenes Forales*

#### DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

4.582

**ORDEN FORAL 598**, de 5 de julio de 2006. Aprobación definitiva del expediente de Plan Parcial del SAU-1 del municipio de Armiñón.

#### I.- ANTECEDENTES

Primero.- Mediante escrito con fecha 2 de febrero de 2006 y número de registro de entrada en la Diputación Foral de Álava, 2763, el Ayuntamiento de Armiñón remitió el expediente de Plan Parcial del Sector SAU-1 de Armiñón.

Segundo.- El expediente fue aprobado inicialmente el 21 de julio de 2005 y sometido a información pública por el plazo de 15 días, mediante su publicación en el periódico "El Correo" de 3 de septiembre de 2005 y en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, número 96 de 29 de agosto de 2005.

Tercero.- Mediante escrito de fecha 6 de marzo de 2006, se notifica al Ayuntamiento de Armiñón la suspensión de la tramitación del expediente por el tiempo que media entre la petición de informe a la Dirección de Obras Públicas y Transportes (3-3-2006) y su recepción, que se produce el 24 de abril de 2006.

Cuarto.- Durante el plazo de información pública no fue presentada ninguna alegación al expediente de Plan Parcial, por lo que fue aprobado provisionalmente el día 3 de septiembre de 2005.

#### II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El presente Plan Parcial ordena pormenorizadamente el suelo urbanizable delimitado por las NNSS de Armiñón designado como SAU-1. Se trata de un área de 32.300 m<sup>2</sup> y está situada al Sur del núcleo urbano de Armiñón, ordenándose terrenos edificables para un total de 39 viviendas, de las que 24 serían pareadas (12x2),

bakarreko bakartuak eta 12 familia bakarreko atxikiak, halaxe xedatzen baitute Armiñongo ordezkoko arauak.

**Bigarrena.-** Arabako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Sailak plan partzialaren eraginpeko finketan egindako arkeologia zundaketan inguru horretan arkeologia aurriak daudela egiaztatu duenez gero, urbanizazio proiektuan aipatutako txostenean proposatutako neurri zuzentzaileak aplikatu behar direla uste du.

**Hirugarrena.-** Bestalde, Herrilan eta Garraio Zuzendaritzak txosten bat aurkeztu du. Txosten horretan planak zortzi baldintza betetzeko edo aldaketa egiteko eskatzen du. Dena den, sustatzaileak aurkeztutako argibideak aurkeztu ondoren, zortzi horiek ondoko laurotan laburbiltzen dira:

I.- N-1 autobiarren trazadura berria irudikatzea, "Vitoria-Peaje" izeneko bidea barne, baita zortasun-zona eta bide biei dagokien eraikitze linea ere.

II.- Planean eta urbanizazio proiektuan autobiak sor lezakeen kutsadura akustikoa arindu edo saihestuko duen pantaila jasoko da. Pantaila horrek sektoreko iparraldean jarraipena izango du eta eraikitze linea ekidingo du. Lan horiek sektoreak ordaindu beharreko kargak izango dira.

III.- Egungo zerbitzu sareekiko loturak xedatzea. Autobia eraikitzeko lanek lotura horiek kaltetzen ez dituztela bermatuko dute.

IV.- SAU1 eta SAU3 arteko lotura Armiñongo lotune berria zerbitzua eskaintzen hasten denean egingo dela ohartaraztea. Lotune berri horrek egun N-1etik herrira sartzeko dagoen sarbidea ordezkatu du.

Horregatik guztiagatik, eta aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

#### XEDATU DUT:

**Lehenengo.-** Armiñongo SAU-1 sektorearen plan partzialaren espedientea behin betiko onartzea honako zuzenketa hauekin:

I.- N-1 autobiarren trazadura berria irudikatzea, "Vitoria-Peaje" izeneko bidea barne, baita zortasun-zona eta bide biei dagokien eraikitze linea ere.

II.- Planean eta urbanizazio proiektuan autobiak sor lezakeen kutsadura akustikoa arindu edo saihestuko duen pantaila jasoko da. Pantaila horrek sektoreko iparraldean jarraipena izango du eta eraikitze linea ekidingo du. Lan horiek sektoreak ordaindu beharreko kargak izango dira.

III.- Egungo zerbitzu sareekiko loturak xedatzea. Autobia eraikitzeko lanek lotura horiek kaltetzen ez dituztela bermatuko dute.

Gainera, ondokoaz ohartarazten da:

I.- SAU1 eta SAU3 arteko lotura Armiñongo lotune berria zerbitzua eskaintzen hasten denean egingo da. Lotune berri horrek egun N-1etik herrira sartzeko dagoen sarbidea ordezkatu du.

II.- Urbanizazio proiektuak Arabako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Sailak plan partzialaren eremuko arkeologia zundaketei buruz egindako txostenean proposatutako neurri zuzentzaileak beteko ditu.

**Bigarren.-** Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan, espedientea zuzenean igorriko zaio foru aldundiari, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezten eta argitara dadin.

**Hirugarren.-** Foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

**Laugarren.-** Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, abiaraz dezaketene beste edozein neurri gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoa baino lehenago, interesatuek berraztertze errekurtsoa jar diezaiokete, eta beste administrazio batzuek errekerimendua, ebazpena eman duen erakunde

3 unifamiliares aisladas y 12 unifamiliares adosadas, siguiendo las posibilidades presentes en las NNSS de Armiñón.

**Segundo.-** El Departamento de Cultura, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Álava, en su informe preliminar de los sondeos arqueológicos efectuados en las fincas afectadas por el Plan Parcial, considera que, comprobada la existencia de restos arqueológicos en la zona, han de aplicarse en el proyecto de urbanización las medidas correctoras del impacto propuestas en el mencionado informe.

**Tercero.-** En otro orden de cosas la Dirección de Obras Públicas y Transportes ha presentado un informe mediante el que solicita que se incorporen ocho condiciones o modificaciones, de diversa índole, al Plan. No obstante, tras la documentación aclaratoria presentada por el promotor, aquéllas han de ceñirse a:

I.- Representar el nuevo trazado de la autovía N-1, incluido el vial denominado "Vitoria-Peaje", y la representación de la zona de servidumbre y la línea de edificación correspondientes a ambas vías.

II.- Prever como carga del sector, en el Plan y en su Proyecto de urbanización, una pantalla que evite de forma efectiva la contaminación acústica que pueda producir la autovía. Además, aquella deberá garantizar su continuidad en toda la parte Norte del Sector y situarse a una distancia que libre la línea de edificación.

III.- Prever las conexiones con las redes de servicios existentes desde puntos que garanticen que aquellos no quedan afectados por las obras de construcción de la autovía.

IV.- Advertir, que la conexión del SAU1 con el SAU3 se realizará cuando esté en servicio el nuevo enlace de Armiñón que sustituye al actual acceso a la localidad desde la N-1.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

#### DISPONGO:

**Primero.-** Aprobar definitivamente el expediente de Plan Parcial del Sector SAU-1 de Armiñón, con las siguientes modificaciones:

I.- Representar el nuevo trazado de la autovía N-1, incluido el vial denominado "Vitoria-Peaje", y la representación de la zona de servidumbre y la línea de edificación correspondientes a ambas vías.

II.- Prever como carga del sector, en el Plan y en su Proyecto de urbanización, una pantalla que evite de forma efectiva la contaminación acústica que pueda producir la autovía. Además, aquella deberá garantizar su continuidad en toda la parte Norte del Sector y situarse a una distancia que libre la línea de edificación.

III.- Prever las conexiones con las redes de servicios existentes desde puntos que garanticen que aquellos no quedan afectados por las obras de construcción de la autovía.

Adicionalmente, advertir que:

I.- La conexión del SAU1 con el SAU3 se realizará cuando esté en servicio el nuevo enlace de Armiñón que sustituye al actual acceso a la localidad desde la N-1.

II.- El proyecto de urbanización adoptará las medidas correctoras del impacto, propuestas en el informe preliminar, emitido por el Departamento de Cultura, Juventud y Deporte de la Diputación Foral, sobre los sondeos arqueológicos efectuados en el ámbito del Plan Parcial.

**Segundo.-** Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas, el expediente se elevará a la Diputación, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

**Tercero.-** Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

**Cuarto.-** Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución,

berberari. Horretarako, hilabete izango da, hura jakinarazi edo argitaratu ondoko egunetik aurrera.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko uztailaren 5a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren zereginetan Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.”

Lo que se publica para general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de julio de 2006.– El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos en funciones de titular del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## Iragarkiak

## DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

4.643

Diputatu Nagusiaren Sailak 2006ko bigarren hiruhilekoan emandako dirulaguntzak:

ONURADUN	ZENBATEKOA EUROTAN	HELBURUA
VITORIA-GASTEIZKO UDALA	20.218,16	BOLUNTARIOEN ELKARTASUN PROGRAMAK GARATZEKO HITZARMENA. 2006
SENEKA KULTURA ZENTRO ANDALUZIARRA	16.000,00	ROCIOKO ERROMERIA OSPATZEKO MUSIKA TALDEA KONTRATATZEKO DIRULAGUNTZA
ODOL-EMAIILEEN ELKARTEA	2.600,00	ESKUERNAGAN, ODOL-EMAIILEEN EGUNA OSPATZEKO LAGUNTZA (2006)
ESPAÑAKO ITSUEN ERAKUNDE NAZIONALA	6.000,00	VITORIA-GASTEIZEN ONCEREN ASTEA ANTOLATZEKO LAGUNTZA
ZAMBRANAKO SANTA LUZIA PARROKIA	3.000,00	PARROKIA ERABERRITZEKO LANETARAKO LAGUNTZA
VEDRUNA-SOLIVE SOLIDARITATE ELKARTEA	11.485,50	KONGON URAREN EKARTEA KONPONDU ETA EGOKITZEKO PROIEKTURAKO LAGUNTZA
"ZARRIAN BARRI" BAZTERTUEI LAGUNTZEKO ELKARTEA	37.023,18	EKUADORREN 101 ANDRERI GARATZEN LAGUNTZEKO PROIEKTURAKO LAGUNTZA
"ZARRIAN BARRI" BAZTERTUEI LAGUNTZEKO ELKARTEA	1.994,56	EKUADORRERA GIZA LAGUNTZAREKIN EDUKIONTZIAK BIDALTEKO LAGUNTZA
SAN VIATOR ELKARTASUN ZERBITZUA ELKARTEA	3.600,00	BOUAKE (BOLI KOSTA) IPARRALDEKO 7 HERRIKO UR-PONPAK KONPONTZEKO LAGUNTZA
MISIOETARAKO EKINTZA PONTIFIKALAK	3.505,44	MALANJERA (ANGOLA) LAGUNTZA ETA MATERIALA DUTEN EDUKIONTZIAK BIDALTEKO LAGUNTZA
INTERMÓN-OXFAM FUNDAZIOA LAGUNTZA	4.000,00	"PERTSONA GUZTIEK BIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA IZAN DEZATEN" PROIEKTURAKO
NAFARROAKO KARMELDAR OINUTSAK, KURIA PROBINTZIALA	13.975,00	"AFRIKA: JOLASTEKO BESTE ERA BAT. 2006" SENTSIBILIZAZIO PROIEKTURAKO LAGUNTZA
SAHARAKO ARABIA EREPUBLIKAREN LAGUNEN ELKARTEA	7.000,00	"DVD DOCUMENTAL HACIA EL MUNDO CON TUS OJOS" PROIEKTURAKO LAGUNTZA
MISIOETARAKO EKINTZA PONTIFIKALAK	13.978,85	"BIDEZKO MERKATARITZA BULTZATUZ ARABAN" PROIEKTURAKO LAGUNTZA
SETEM-EUSKALHERRIA HEGO HAIZEA	3.999,75	"HEGOLDEKO IRUDIAK" PROIEKTURAKO LAGUNTZA
MUGARIK GABE	13.996,44	"IV. GIZARTE ZINE ERAKUSKETA: EL SUR PROTAGONISTA.-CUBA" PROIEKTURAKO LAGUNTZA
HEGOA DOKUMENTAZIO ETA IKERKETA ZENTROA	6.158,60	"GARAPENEAN HEZITZEKO III. KONGRESUKO PRESTAKUNTZA JARDUNALDIAK" PROIEK. LAGUNTZA
MUGARIK GABE	89.834,30	"NIKARAGUAKO LANDA EREMUKO BIZTANLEEN OSASUNA HOBETZEKO" PROIEKTURAKO LAGUNTZA
SETEM-EUSKALHERRIA HEGO HAIZEA	99.095,95	"KOLONBIAN NEKAZARITZA EREMUKO INGURUMENAREN KUDEAKETA" PROIEKTURAKO LAGUNTZA
LANKIDETZARAKO INGENIARIEN ELKARTEA	96.500,00	"BOLI KOSTAKO OKASSOUKO EMAKUMEAK AHALDUNTZEKO ZENTROA" PROIEKTURAKO LAGUNTZA
FUNDACIÓN PAZ Y SOLIDARIDAD DE EUSKADI FUNDAZIOA	93.950,84	"TXIAPASEN (MEXIKO) ZAPATISTEN OSASUN SISTEMA AUTONOMOIA LAGUNTZEKO" PROIEK. LAGUN.
FUNDACIÓN PAZ Y SOLIDARIDAD DE EUSKADI FUNDAZIOA	79.910,23	"HONDURASEN, HIRU KOOPERATIBEN ANTOLAMENDUA SENDOTZEKO" PROIEKTURAKO LAGUNTZA
ALBOAN FUNDAZIOA	99.637,67	"LIBERIAN GIZARTEARATZEKO LAGUNTZA OSOA" PROIEKTURAKO LAGUNTZA
SAN VIATOR ELKARTASUN ZERBITZUA ELKARTEA	30.000,00	"BOLI KOSTARA JOANDAKO FAMILIEN ELIKADURA ETA OSASUNA" PROIEKTURAKO LAGUNTZA
NAFARROAKO KARMELDAR OINUTSAK, KURIA PROBINTZIALA	30.000,00	"KERALAKO (INDIA) SAN JOSE OSPITALA. OSASUN LAGUNTZA" PROIEKTURAKO LAGUNTZA
SAHARAKO ARABIA EREPUBLIKAREN LAGUNEN ELKARTEA	30.000,00	"ARGELIAN BABESTUTAKO SAHARATARREI ELIKAGAIAK ERAMATEKO" PROIEKTURAKO LAGUNTZA
SETEM-EUSKALHERRIA HEGO HAIZEA	14.650,00	ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO SENTSIBILIZAZIOKO PRESTAKUNTZA EGINTZETARAKO LAGUN.
GARAPEN BIDEKO HERRIETAKO LARRIALDEI AURRE EGITEKO FUNTS ARABARRA	77.574,49	ZENBAIT PROIEKTUEN FUNTSESERAKO EKARPEN. 2006
UME SAHARARRAK HARTZEN DITUZTEN FAMILIEN ELKARTEA (AFANIS)	10.000,00	"OPORRAK BAKEAN. 2006" PROIEKTURAKO LAGUNTZA
SAHARAKO ARABIA EREPUBLIKAREN LAGUNEN ELKARTEA	30.269,12	"SAHARAR HERRIARI LAGUNTZEKO EUROPAKO XXXII. HITZALDIA" LAGUNTZA
HIRI-LIBERTATEA (CILIB) ELKARTEA	14.500,00	"ELKARBIZITZA DEMOKRATIKOA: JOLAS ARUAUK" PROIEKTURAKO LAGUNTZA
ERMUKO FOROA GIZARTE ETA KULTURA ELKARTEA	25.000,00	"ELKARBIZITZA SARIAREN VI. EKITALDIA" PROGRAMARAKO LAGUNTZA
EUSKAL FONDOA ELKARTEA-LANKIDETZARAKO EUSKAL FONDOA	87.550,00	FRAY BARTOLOME HERRIAN 3,64 KM-KO LANDA BIDEA ERAIKITZEKO PROIEKTURAKO LAGUNTZA

## Anuncios

## DEPARTAMENTO DEL DIPUTADO GENERAL

4.643

Subvenciones concedidas por el departamento de Diputado General durante el segundo trimestre del ejercicio de 2006:

BENEFICIARIO	IMPORTE EUROS	FINALIDAD
AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ	20.218,16	CONVENIO DESARROLLO PROGRAMA VOLUNTARIADO PROYECTOS SOLIDARIOS AÑO 2006
CENTRO CULTURAL ANDALUZ SÉNECA	16.000,00	AYUDA CONTRATACIÓN GRUPO MUSICAL CELEBRACIÓN ROMERÍA DEL ROCÍO
ASOCIACIÓN PROVINCIAL DONANTES DE SANGRE	2.600,00	AYUDA CELEBRACIÓN EN VILLABUENA DIA DEL DONANTE DE SANGRE AÑO 2006
ORGANIZACIÓN NACIONAL CIEGOS ESPAÑOLES	6.000,00	AYUDA ORGANIZACIÓN SEMANA DE LA ONCE EN VITORIA-GASTEIZ.
PARROQUIA SANTA LUCÍA DE ZAMBRANA	3.000,00	AYUDA OBRAS REFORMA PARROQUIA
ASOCIACIÓN SOLIDARIDAD VEDRUNA-SOLIVE	11.485,50	AYUDA PROYECTO "REPARACIÓN Y ACONDICIONAMIENTO TRÁIDA AGUA EN CONGO"
ASOCIACIÓN PARA AYUDA A MARGINADOS "ZARRIAN BARRI"	37.023,18	AYUDA PROYECTO "CONTRIBUCIÓN DESARROLLO INTEGRAL 101 MUJERES EN ECUADOR"
ASOCIACIÓN PARA AYUDA A MARGINADOS "ZARRIAN BARRI"	1.994,56	AYUDA ENVÍO CONTAINER CON AYUDA HUMANITARIA A ECUADOR
ASOCIACIÓN SERVICIO DE SOLIDARIDAD SAN VIATOR	3.600,00	AYUDA REPARACIÓN BOMBAS AGUA SIETE POBLACIONES NORTE BOUAKE (C.MARFIL)
OBRAS MISIONALES PONTIFICIAS	3.505,44	AYUDA ENVÍO CONTAINER MATERIAL CLÍNICO-HUMANITARIO A MALANJE (ANGOLA)
FUNDACIÓN INTERMÓN-OXFAM	4.000,00	AYUDA PROYECTO "POR EL DERECHO DE TODAS LAS PERSONAS A UNA VIDA DIGNA"
CARMELITAS DESCALZOS DE NAVARRA, CÚRIA PROVINCIAL	13.975,00	AYUDA PROYECTO SENSIBILIZACIÓN: ÁFRICA: OTRA FORMA DE JUGAR" 2006
ASOCIACIÓN DE AMIGOS Y AMIGAS DE LA REPÚBLICA ÁRABE SAHARAUI	7.000,00	AYUDA PROYECTO "DVD DOCUMENTAL HACIA EL MUNTO CON TUS OJOS"
OBRAS MISIONALES PONTIFICIAS	13.978,85	AYUDA PROYECTO "BIDEZKO MERKATARITZA BULTZATUZ ARABAN"
SETEM-EUSKALHERRIA HEGO HAIZEA	3.999,75	AYUDA PROYECTO "HEGOLDEKO IRUDIAK"
MUGARIK GABE	13.996,44	AYUDA PROGRAMA "IV MUESTRA DE CINE SOCIAL: EL SUR PROTAGONISTA.-CUBA"
HEGOA CENTRO DE DOCUMENTACIÓN E INVESTIGACIÓN	6.158,60	AYUDA PROYECTO "JORNADAS PREPARATORIAS III CONGRESO EDUCACIÓN AL DESARROLLO"
MUGARIK GABE	89.834,30	AYUDA PROYECTO "MEJORA SALUD INTEGRAL POBLACIÓN RURAL EN NICARAGUA"
SETEM-EUSKALHERRIA HEGO HAIZEA	99.095,95	AYUDA PROYECTO "GESTIÓN AMBIENTAL COMUNIDAD CAMPESINA EN COLOMBIA"
ASOCIACIÓN DE INGENIEROS PARA LA COOPERACIÓN	96.500,00	AYUDA PROYECTO "CENTRO EMPODERAMIENTO LA MUJER EN OKASSOU (COSTA DE MARFIL)
FUNDACIÓN PAZ Y SOLIDARIDAD DE EUSKADI	93.950,84	AYUDA PROYECTO "APOYO SISTEMA SXALUD AUTÓNOMO ZAPATISTA EN CHIAPAS-MÉXICO"